

Helburuak: Batetik, hiri barruko ibilaldiak aintzatetsi eta sustatu ongizate fisiko, emozional eta sozial iturri gisa. Bestetik, desberdinen arteko milaka topaketa, ibilaldi eta hizketaldi sustatu.

Talde erronka: Munduari bira eman 84 egunean eta Donostiatik irten gabe. Hau da, 40.075 kilometro ibili.

Iraupena: Apirilaren 6tik ekainaren 29ra.

Ibilbidea: Sagües y Haizearen Orraziaren artean 6 baliza jarri ditugu paseorako 5 tarte zehaztuz.

- Sagües - Salamanca pasealekua.
- Salamanca pasealekua – Pasealeku Berria (Oteiza).
- Pasealeku Berria (Oteiza) – Nautikoa.
- Nautikoa – Kontxako pasealekua (Fleming).
- Kontxako pasealekua (Fleming) – Haizearen Orrazia.

DINAMIKA

1) **Txartela erosi** (2€). Donostiarekin dugun harremanaren arabera 4 txarteletako bat aukeratu:

- Donostiarra naiz, Donostian jaioa (urdira)
- Donostiarra naiz, Donostian jaio ez arren (berdea)
- Donostia nire bizitzaren parte da (morea)
- Ez dut Donostiarekin harremanik, baina erronkan parte hartu nahi dut (horia)

Txartelak Ijentea Kafea-n (udaletxe aurrean) salgai daude edo elkarteek antolakuntzaren bidez lor ditzakezue.

2) **Paseatu eta hitz egin:** Kolore desberdineko txartelak dituztenek bikoteka edo taldean egindako kilometroak bakarrik gehituko dira. Taldeetan nahikoa da bi txartel desberdin egotea, esaterako, urdin bat eta lau hori.

3) **Parte hartzea:** Nahi bestetan parte har daiteke: behin, hamar, egunero... Nahi adina. Ordutegia ere bikote/talde bakoitzak aukeratu du. Balizak aktibatuta daude eguneko 24 orduetan, egunero, erronkak iraun artean. Tarteei dagokienez ere ez dago mugarik. Nahi den balizatik abiatu eta nahi adina ibil daiteke. Betiere, txartela ibilbidean topatutako baliza guztietan pasa behar da.

4) Nautikoko baliza norekin ibili ez dutenen topalekua izango da. Ordu bikoitietan 10h-20h bitartean bertan elkar daitezke bikoteak/taldeak osatzeko.

ELKARTE/ERAKUNDEAK

Elkarte eta erakundeei bi modutan parte hartzea proposatzen dizuegu. Batetik, ekimena erabil dezakezue barne dinamizazio tresna gisa edo jarduera berezi bat egiteko zuen kide/erabiltzaileekin. Gainera, beste erakunde batzuetako partaideekin ibiltzea ere proposatzen dizuegu. Zenbait elkarte hiriko beste eragile batzuk ezagutu nahi dituzte. Kasu horretan, gu arduratuko ginateke hitzordua zehazten elkarte bakoitzaren aukeren arabera.

Halaber, webgunean egutegi bat dugu elkarten eta erakundeen parte hartzearen berri emateko hiritarrei. Horrela, nahi duenak eragile horiekin ibiltzeko aukera izango du. Noski, sare sozialetan ere zabalduko dugu ahalik eta gehien hedatzeko.